

## Sorne Unzueta Landeta

**Udalerrria:** Bilbo (Bizkaia)

**Jaiotze-data:** 1900-11-27

**Heriotza data:** 2005-01-13

**Lanbidea:** Irakaslea eta euskal idazlea



*Utarsus* ezizenez, irakaslea eta euskal idazlea izan zen. Bilboko Irakasleen Goi Eskola Normalean ikasi eta maistra titulua hartuta, 1920tik aurrera auzo-eskoletan aritu zen: Errigoitin, Plentzian, Lemoan, Berangon... Orduko joera orokorraren kontra eginez, ikasleei euskaraz irakasten zien. Bizkaiko Euzko Ikastola Batzako kidea zen.

2018an Espainiako Liburutegi Nazionalak bere testu hautaketa bat sartu zuen "Emakume iraultzaile eta transgresoreak" izeneko ekimenean, Emakume idazleen eguna ospatzeko.

Iturria: [Wikipedia](#)

